

## **HKEE-REN PRENTSA OHARRA, PLENTZIAKO UDALAREN FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA, 2017.**

---

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren Osoko bilkurak aho batez onartu zuen joan den uztailaren 24an Plentziako Udalaren eta PLENBISA, Plentzia uriko alde zaharra birgaitzeko hirigintza-sozietatea SA sozietate publikoaren ekonomia-finantzaren kudeaketaren gaineko fiskalizazio txostena, 2017ko ekitaldikoa.

2017ko **Urteko kontuei** dagokienez, HKEEk **aldeko iritzia** plazaratu du, nahiz ezin ondoriorik eskuratu izan dugun Udalaren Balantzeko Ibilgetu ez finantzarioaren saldoen gainean. Gainera, PLENBISAren finantza egoerak ez daude Kontu Orokorrean jasoak eta ez da, halaber, administrazioarekiko auzi-errekurtso baten berri ere ematen, 2000ko urtean izenpetutako hirigintzako hitzarmen batekin lotua; egoera honek Udalaren Kontuak eragin ditzake.

Udalak fiskalizazio-gai izan den Kontu Orokorrak erakusten duen finantza egoera aztertu du eta ondorioztatu du Udalak egoera ekonomiko osasuntsua duela eta behar hainbateko baliabideak dituela ohiko jarduerari eusteko eta etorkizuneko inbertsioei zorpetu beharrik izan gabe aurre egiteko.

Halaber, txostenak ondorioztatu du Udalaren kontu-hartzailetzak jaulkitako txostenaren arabera, 2017an aurrekontuaren egonkortasun, gastuaren arau eta finantzaren iraunkortasun eta zor publikoaren araua bete dela.

Udalak eta bere sozietate publikoak zuzentasunez bete dute 2017ko ekitaldian ekonomia-finantzaren jarduera arautzen duen lege-arautegia, nahiz akatsak azaleratu diren langileen eta kontratazioaren ataletan; izan ere, Udalari hirigintzako aholkularitza zerbitzua ematen ziharduen langile batek lan kontratu mugagabe ez finkoko langile izaera hartu zuen epai baten ondorioz eta bestalde, energia elektrikoaren horniduraren kontratazioa prozedura irekia baliatuta izapidetu behar zatekeen.